



**ERANTZUNKIZUN POLITIKOA LANGABEZIAREN HAZKUNDEAN,
PREKARITATEA ETA BABES SOZIAL EZA**

ELA, 2012ko otsailak 6

I.- EUSKAL HERRIA: LANGABEZIA EUROPAKO ZERRENDABURU, PREKARIETATEA ETA GIZARTE BABES EZA

Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoak (SEPE) 2012ko urtarrilean argitaratu dituen datuen arabera, Hego Euskal Herrian langabeziak 13.676 pertsonako hazkundera izan du joan den hileko datuekin alderatuta. Datu hauekin ELAk argi ikusten du erakundeek enplegua sortzeko helburua alde batera utzi dutela. Ezartzen ari diren gastu murrizketen helburu bakarra defizit publikoaren gutxitzea da, baina, egoerak onera egin beharrean, espainiar Estatuko lehendakariak, Lopez lehendakariak eta Barcina lehendakariak planteaturiko murrizketa neurriek enplegu suntsiketa gehiago eta prekarietatea dakarte, gizarte babesa larriagotzen da, eta azken finean, krisia areagotzen ari da. Hala ba, irtenbide bidegabe eta ezegokia jarri dute mahai gainean, krisia ohikoenek ordaintzen jarrai dezagun.

ELAk, honako datuak azpimarratu nahi ditu:

- **SEPEn langabetu kopurua 2012ko urtarrilean 206.016 pertsonakoa izan da Hego Euskal Herrian**, joan den abenduan baino 13.676 gehiago. Datua 2011ko urtarrileko langabetu kopuruarekin alderatuz 17.748 pertsona gehiago daude langabezian aurtengo urtarrilean. Beraz, abendutik hona %7,1eko igoera izan du langabetu kopuruak eta %9,4koa joan den urtarritetik hona.

Hego Euskal Herriko langabezi tasa 2012ko urtarrilean %15,08koa da. 2011ko urtarrilean datu hau puntu bat pasatxo baxuagoa izan zen, %13,84koa.

Hego Euskal Herriko langabezia, Europar Batasuneko batazbestekoa baino nabari altuagoa da, eta gainera azkarrago ari da igotzen, hots, Hego Euskal Herriko eta Europar Batasuneko batazbestekoaren aldea gero eta handiagoa da. Langabeziaren batazbestekoa EB27an 2011ko abenduan %9,9koa da. Aldea HEHrekin ia bost puntutakoa da.

Eurostaten datuen arabera Estatu espainiarra, Europar Batasuneko langabezi tasaren zerrenda burua da, gehienezko tasatik gutxienera ordenatuta. Hego Euskal Herria zerrenda horretan gero eta gorago kokatzen da. Gure langabezi tasa Estatu espainiarrak, Greziak, Irlandak, Lituaniak eta Letoniak gainditzen dute. Aipagarria da Portugaleko egoera zein den ikusita, HEHko langabezi tasa altuagoa izatea.

Gazteen arteko langabezi tasa (16 eta 25 urte bitartekoak) ere aipagarria da, Europar Batasuneko batazbestekoa %22,1koa baita. Estatu espainiarreko tasak europarra bikoizten du, %48,7ra iristen delarik; Hego Euskal Herriko tasa % 23,2koa da.

Hurrengo taula honek langabezi tasak izan duen urtebeteko bilakaera erakusten du (%):

	2010eko Abendua	2011ko Abendua	Aldaketa
EB27	9.5	9,9%	+0,4%
Belgika	7.6	7.2	+0,4
Bulgaria	11.4	11.2	+0,2
Txekiar Errepublika	7.2	6.8	+0,4
Danimarka	7.6	7.8	+0,2
Alemania	6.6	5.5	-1,1
Estonia	14.5	12.6	-1,9
Irlanda	14.5	14.5	0
Grezia	14.4	18.4	+4,0
E. espainiarra	20.4	22.9	+2,5
HEH	13.15	14.08	+0.93
E. frantsesa	9.7	9.9	+0,2
Italia	8.1	8.9	+0,7
Txipre	6.1	9.3	+3,2
Letonia	17.0	16.0	-1.0
Lituania	17.4	15.4	-2.0
Luxemburgo	4.8	5.2	+0,4
Hungria	11.0	10.9	-0,1
Malta	6.6	6.5	-0,1
Herbereak	4.3	4.9	+0,6
Austria	4.2	4.1	-0,1
Polonia	9.6	9.9	+0,3
Portugal	12.4	13.6	+1,2
Errumania	7.3	7.0	-0,3
Eslovenia	8.0	8.2	+0,2
Eslovakia	13.8	13.4	-0,4
Finlandia	8.1	7.6	-0,5
Suezia	7.8	7.5	-0,3
Erresuma Batua	7.8	8.0	+0.2

Iturria: Eurostat

- **Langabezi saririk gabe dauden pertsonen portzentaiak gora egin du.** Langabezian daudenen %41,1ak ez du inolako langabezi saririk jaso abenduan, iaz baino %4,6 gehiago. Ordainutakoaren arabera saria jasotzen dutenen portzentaiak behera egin du (%36,5, 2010eko abenduan baino 2,5 puntu gutxiago). Beraz, alde batetik langabezi saria jasotzen duten pertsona kopurua gutxitzen doa eta gainera jasotzen dutenek gero era sari txikiagoa eskuratzen dute.
- **Aldi baterako kontratazioak gora egin du. Urtarrilean sinatu diren 68.993 kontratuetatik, %93,7a aldi baterako izan dira, iazko epealdi berdinean baino 2 puntu gehiago.**

II- LANBIDEREN POLITIKA, GERO ETA OKERRAGO

2011ko urtarrilaren 1ean Eusko Jaurlaritzak enplegu-politiken gaineko eskumena jaso zuen estatutik. Ordurako ELAk salatu zuen transferentzia hori (EAJk eta Zapateroren gobernuak hitzartu eta gero Patxi Lopezek berretsia) oso baldintza txarretan zetorrela, batik bat bi arrazoiengatik:

- Eskumen jakin batzuren kudeaketa besterik ez zen transferitzen; aldiz, aurrerantzean ere enplegu-politikei buruzko erabakiak Madrilen hartuko ziren.
- Transferentziaren irizpide ekonomikoek ez zuten Hitzarmen Ekonomikoa errespetatzen; ondorioz, eskumen hau bereganatu izanak Eusko Jaurlaritzari urtero milioitako galera ekonomikoa eragingo zion.

Eskumena jaso zenetik urtebete igaro delarik, ELAk salatzen du bere garaian salatutakoa bete egin dela. Ez daukagu berton erabakitako enplegu-politikarik, eta transferentzia oker giteak 2011n 40 milioi euroko defizita eragin du.

Eusko Jaurlaritzaren politikak langabezia handiagoa eragiten du. Arlo publikoan egindako enplegu murrizketek eta gainerako aurrekontu-sailetakook atzeraldi ekonomikoa larriagotzen ari dira, eta horrenbestez, langabezia gehitzea dakarte, zuzenean eta zeharka.

Honi gaineratu behar zaio Lanbidek inondik ere ez dituela langabeen beharrianak asetzen:

- Enplegu Saila da Lanbidek pairatzen dituen antolakuntza arazo larrien arduraduna. Horren adibide, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DBE) gertatutakoa. ELAk esan zuen errenta honen kudeaketa Lanbideren esku uzteko erabakiaren aurka zegoela; orduan erabakia azaltzeko esan zenez, gastua kontrolatu beharra zegoen (beraz, Gizarte-Zerbitzuei kargu hartzen zitzaien). Erabaki hau nagusikeriaz hartu zen, eta zerbitzuko langile berriei formazio nahikoa eman ez zietenenez, DBE jasotzen dutenei kalte egiten ari zaizkie.
- Prestakuntza-politikei dagokienez, lehentasuna da funtsak Confebask, CCOO eta UGTren artean nola banatzen diren, ez eskaintzen den formazioaren kalitatea. Jakingarria da murrizketa aro honetan sindikatu horiek eta patronalek euren buruari bideratzen dioten dirua ez dela gutxitu.
- Enplegu-bitartekaritzan ere nagusi da diru publikoarekin negozioa egiten duten erakunde eta enpresen jarduna.

Honek guztiak ondorio batera garamatza: Transferentzia berez txarra zen, baina azken urtean gertatu dena uste baino askoz okerragoa izan da, Eusko Jaurlaritzaren eta Lanbideko ereduaren parte hartu dutenen jardunaren ondorioz (hots, CCOO, UGT eta Confebask).